

elkartea

55

INFORMAZIO ALDIZKARIA
2021 ko ABENDUA

www.elkartean.org



elkartean

elkartean@elkartean.org

“BIZIMODU INDEPENDENTERAKO” gidaliburua

AURKEZTU DUGU

elkartea
ASOCIACIÓN COORDINADORA DE PERSONAS CON DISCAPACIDAD FÍSICA DE ESPAÑA

guía de
VIDA INDEPENDIENTE



RECURSOS Y ALTERNATIVAS
PARA DECIDIR DÓNDE, CÓMO
Y CON QUIÉN VIVIR



PUBLIPOSTA
PUBLICORREO



ARABA



EGINAREN EGINEZ

Arabako gutxitasun fisikoa duten pertsonen elkarte

GIPUZKOA



AGAER

Gaixotasun erreumatikoeak erasandakoen Gipuzkoako elkarte

AGE

Gipuzkoako epilepsiaren elkarte

AGI

Gipuzkoako ikusmen urria dutenen elkarte

ANAIDIA

Gutxitasuna duten pertsonetako kristau senidetasuna

ASPARGI

Gipuzkoako parkinson elkarte

BEGIRIS

Gipuzkoako itsu edo ikusmen urritasuna duten pertsonen inklusioa sustatzeko elkarte

BIZI-BIDE

Asociación Guipuzcoana de fibromialgia, síndrome de fatiga crónica, encefalitis miálgica múltiple y electrohipersensibilidad

KOXKA

Desgaitasunen bat duten Hernaniko elkarte

KEMEN

Pertsona ezinduen kirol kluba

LEZDI

Lezoko gutxituen elkarte

Eusko Jaurlaritzako Berdintasan, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren dirulaguntzarekin egindako argitalpena.

Elkarte hauekin harremanetan jarri nahi baduzu, jo ezazu zure lurraldeko koordinatzaileara.

BIZKAIA



ACCU

Bizkaiko Crohnen eritasuna eta ultzeradun kolitisa duten gaixoen elkarte

ADELA

Alboko esklerosi amiotrofiakoaren Bizkaiko elkarte

ADELES

Bizkaiko Lupus eritematoso sistemikoa duten gaixoen elkarte

ADEMBI

Bizkaiko esklerosi anizkoitzaren elkarte

ADISA

Desgaitasuna duten pertsonen Santurtziko elkarte

AHEVA

Bizkaiko hemofiliaren elkarte

ALCER

Bizkaiko giltzurruneko gaixotasunen aurkako elkarte

ARGIA

Bizkaiko ostomizatuen elkarte

ASEBIER

Arantza bifidoa eta hidrocefalia gaixotasun arraroen euskadiko elkarte

ASPANOVAS

Bizkaiko haur minbizidunen gurasoen elkarte

BENE

Bizkaiko eritasun neuromuskularren elkarte

BIDARI

Gutxitasun fisikoa duten pertsonen Ermuko elkarte

BIZKEL

Bizkaiko bizkarmuinaren kaltetuak

CODISFIBA

Barakaldoko gutxitasun fisikoa duten pertsonen elkarte

EFELA

Gutxitasun fisikoa duten pertsonen Arratiako elkarte

EMAN ESKUA

Fibromialgia eta neke kronikoaren Bizkaiko elkarte

FRATER

Elbarrituen eta gaixoen kristau elkarte

LEVAR

Artritis reumatoidea duten pertsonen Bizkaiko elkarte

ARABA

Simón Bolívar plaza, 9 behea
Tel.: 945 22 55 16
Faxa: 945 06 18 09
01003 VITORIA-GASTEIZ
info@eginez.org
www.eginez.org

BIZKAIA

Blas Otero, 63 behea
Tel.: 94 405 36 66
Faxa: 94 405 36 69
48014 BILBAO
fekoar@fekoar.com
www.fekoar.com

GIPUZKOA

Ondarreta pasealekua, 5.ean
Tel.: 943 31 67 70
Faxa: 943 31 63 79
20018 DONOSTIA
elkartu@elkartu.org
www.elkartu.org

EDITA:

EUSKADIKO DESGAITASUN FISIKOA DUTEN
PERTSONEN ELKARTE KOORDINATZAILEA



L.G.:
Vi-123/01

Inprimitzeko erabilitako materiala:



Iturri arduratsuetatik datorren paper partzialki birziklatua



OROKORRA

“Bizimodu independenterako gidaliburua” aurkeztu dugu

4

- 6** • Etxebizitzen irisgarritasunerako laguntza berriak .
- 11** • Indarkeriaren biktima diren eta desgaitasuna duten emakumeei ematen zaien laguntza hobetzeko tresna berriak: “Metis gidaliburua” eta “Semaforoa” eguneratzea.
- 12** • Irisgarritasun plan eta obretarako laguntzak kentzea salatzen dugu.
- 13** • Desgaitasuna kontuan hartzea Eusko Jaurlaritzan prestatzen ari den DSBE-ren erregulazio berrian.
- 14** • Enpleguari buruzko behaketa orokorrari egindako ekarpenak.
 - Desgaitasuna duten pertsonen nazioarteko egunaren inguruko manifestua.

ARABA

- 15** • Aldamioen ordenantza.
 - Arabako ESI.
- 16** • Enplegua.
- 17** • Taxi zerbitzurako laguntzak.
- 18** • Tranbia.
 - Sinadurak jasotzea.
 - Etxebizitza egokituak.
 - Kontzientziazioa eta prestakuntza.
- 19** • Sareko lana.

BIZKAIA

- 20** • Fekoorreko elkarteek kanpaina bat abiarazi dute sareetan, asoziazionismoa sustatzeko.
 - Bilboren konpromisoa Artxandako irisgarritasuna hobetzeko.
- 21** • Fekoorrek ibilbide irisgarria diseinatu du Lamiakon (Leioa).
 - ALSari eskatu diogu linea eta autobus egokituen kopurua gehitzeko.
 - Zatoz FEKOORekin entrenatzera.
- 22** • Desgaitasunen Europako kolektiboen lehen topaketa.
- 23** • Bizkaian bizimodu independentearen kultura zabaltzea.
 - Fekoorreko Zuzendaritza Batzorde berria.
 - Etxegokik 10 urte bete ditu.

GIPUZKOA

- 24** • Etxebizitza eta irisgarritasuna: parte hartzeko prozesua.
 - Museoetako irisgarritasunari buruzko prestakuntza.
- 25** • Bizimodu independenteari buruzko oharrak.
- 26** • Ondare irisgarria eta inklusiboa ondarearen europako jardunaldietan.
- 27** • Salaketa Donostia-Biarritz autobusari buruz.
 - Astigarragako kirol instalazioei buruzko araudia.
- 28** • “Hiria pentsatzen” erakusketa.
 - Datuak eguneratzeko eta hobetzeko proposamenak jasotzeko prozesua.

“BIZIMODU INDEPENDENTERAKO GIDALIBURUA”

AURKEZTU DUGU

Elkarteanek Bizimodu Independenterako Gidaliburua egin du, eta, bertan, gaur egun eskura dauden baliabideak eta aukerak jaso ditugu, desgaitasuna duten pertsonak bizimodu independenterako bidea egiten has daitezten.

Zehazki, bizimodu independentea garatzeko ezinbestekoak diren baliabideak, pres-tazioak eta egungo aukerak bildu ditugu:

1

Etxebizitza duina, egokia eta irisgarria: dau-den aukerak jasotzen ditu (bai etxebizitza ja-betzan eskuratzeko, bai alokairuan eskuratzeko), babes ofizialeko etxebizitzak, etxebizitza sozialak edo Bizigune bezalako beste progra-ma batzuk barne hartuta. Baita Etxebizitza Sailak (Etxebide) etxebizitza duin, egoki eta irisgarria eskuratzeko eskubide subjektiboa bermatzeko eskaintzen dituen laguntzak ere.

2



Laguntza pertsonala: bizimodu independenterako ezinbestekoa den baliabide hori ordaintzen laguntzeko egungo prestazio ekonomikoak jasotzen ditu, bai eta laguntza pertsonala kontratatzeko dauden aukerak eta egin behar diren kudeaketak ere (kontratazio-aukerak, kontratu-mota eta Lanbiden eta Gizarte Segurantzaren egin beharreko jarduketak, etab.).

3

Bizimodu independentea erraztu dezaketen beste zerbitzu batzuk, hala nola norberaren etxean bizitzen jarraitzeko eta autonomia izateko gaur egun dauden beste zerbitzu batzuk (adibidez, etxez etxeko laguntza-zerbitzua edo telelaguntza).

4

Autonomia pertsonalerako eta komunitatean parte hartzeko laguntza-produktuak: produktu horiek eskuratzeko egungo aukerak eta laguntzak jasotzen ditu (bai Osasun Sistemaren katalogo ortoprotesikotik, bai lurralde bakoitzeko gizarte-zerbitzuen autonomia pertsonalerako laguntzetatik).

5

Behar besteko diru-sarrerak bermatzea: eskura dauden aukerak, prestazioak eta hautabideak jasotzen ditu:

- Bai diru-sarrerak lortzean: enplegua lortzea eta, hala badagokio, enpleguari lotutako pentsio eta prestazio ekonomikoak eskuratzeko (langabezia-prestazioa, gizarteratzeko errenta aktiboa, etab.), diru-sarre-

rak bermatzeko prestazio ekonomikoak eskuratzeko (DSBE, oinarritzko gutxieneko diru-sarrera, gizarte-larrialdietarako laguntzak), edo bestelako pentsio eta gizarte-babeseko prestazioak eskuratzeko (kotizaziopeko eta kotizazio gabeko pentsioak, ardurapeko seme-alabengatikoko prestazioa, etab.).

- Bai zerga-arloko ekintza positiboko neurrien bidez gastuak murrizteko aukeretan (hobariak, kenkaria, BEZ murriztua, etab.).

Eskura dauden prestazio, laguntza eta baliabideen egungo sistemak oraindik gabezia ugari baditu ere, eta kolektiboak bizimodu independenterako duen eskubidea gauzatzeko aukera nahikoa eskaintzen ez badu ere, gidaliburu honek egungo egoera hobetzen lagun dezake:

- Desgaitasuna duten pertsonak ahalguz, egungo baliabide eta aukeren “sartari” buruzko ezagutza eta erreferentzia hobek emanez, eskura dituzten tresna guztiak eskatzera, baliatzera eta/edo erabiltzera animatuz, beren aktibismoa eskubideen defentsan txerta dezaten.
- Arlo guztietan (gizarte-zerbitzuak, enplegua, etxebizitza, etab.) laguntza, informazioa, aholkularitza eta orientazioa ematen dieten profesionali ikuspegi orokorra, zabalagoa eta zeharkakoa emanez, bizimodu independentea lortzeko garapen-prozesuak bultzatzeko, desistituzionalizazioa oinarritzat hartuta.

ETXEBIZITZEN IRISGARRITASUNERAKO

LAGUNTZA BERRIAK

Agindua, 2021eko uztailaren 21ekoa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitzaren eta eraikinen birgaitzearen, irisgarritasunaren eta energia-efizientziaren arloko jarduketa babesgarrietarako finantza-neurriei buruzkoa.

Esteka honen bidez sar zaitezke araudi berriaren eduki osora:

[https://www.legegunea.euskadi.eus/eli/es-pv/o/2021/07/21/\(7\)/dof/spa/html/webleg00-contfich/es/](https://www.legegunea.euskadi.eus/eli/es-pv/o/2021/07/21/(7)/dof/spa/html/webleg00-contfich/es/)

Eusko Jaurlaritzak etxebizitzetan eta eraikinetan birgaitzeko, irisgarritasunerako eta energia-efizientziarako lanak egiteko laguntzen agindu berria onartu du. Hauek dira berritasun nagusiak:

- Laguntza publikoen zenbatekoa handitzen da, eta diru-sarreraren mugak murrizten dira, pertsona gehiagorengana iristeko.
- Irisgarritasuna sustatzeko diru-laguntzen lerro berezi berri bat sartu da, 65 urtetik gorako pertsonentzako eta/edo desgaitasuna duten pertsonentzako eta urtean 12.000 eurorainoko diru-sarrera haztatua dituzten bizikidetza-unitateentzako.
- Obren kostuaren % 100 ordaintzeko maileguak eskuratzeko aukera ezartzen da, eta edozein unetan eskuratu ahal izango dira, jarduketa onartzeko administrazio-ebazpena jakinarazten denetik aurrera.
- Jabeen erkidegoek ere maileguak eska ditzakete elementu komunetan birgaitze-edo irisgarritasun-obrak egiteko (jabetza horizontalean).

Zehazki, araudi berriak lau laguntza-lerro jasotzen ditu (“diru-laguntzen lerroak”), honako jarduketa hauek betetzeko, baldintza eta zenbateko nagusi hauek kontuan hartuta:



DIRU LAGUNTZEN LERROAK	TORDAINTZEN DITUZTEN JARDUKETA MOTAK	LAGUNTZAK JASOTZEKO BALDINTZA OROKORRAK	AURREIKUSITAKO LAGUNTZAK
<p>1. lerroa:</p> <p>Obra partikularrak</p> <p>Etxebizitza partikularretarako dira, familia bakarrekoak, atxikiak edo jabetza horizontaleko araubidekoak.</p>	<p>1. mota. Kontserbazio eta bizigarritasun-erako obrak: elektrizitatea, saneamendua, hornidura, hondakinen kudeaketa; konfort akustikoa, lokalak etxebizitza bihurtzea, fatxada...</p> <p>2. mota. Eraginkortasun energetikoa hobetzeko obrak: berokuntza, hoztea, aireztapena, ur bero sanitarioa, argiztapena, energia elektrikoaren autokontsumoa, inguratzailerako termiko-akustikoa, barneko airearen kalitatea; isolamendu termiko-akustikoa; kanpoko arotzeria ordeztzea; leiho eta galdaren aldaketak...</p> <p>3. mota. Irisgarritasuna hobetzea: komunak egokitzea, banaketa aldatzea, desgaitasun sentsorialak dituztenentzat egokitzea...</p> <p>4. mota. Eraikuntza onaren printzipioetara egokitzea: igeltserotza, eskaiola, barne-errotzeria, iturgintza, elektrizitate-instalazio partzialak, telefonia, berokuntza, gasa eta pintura...</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Etxebizitzaren gaineko eskubideen jabea, errentaria edo titularra izatea (ohikoa eta iraunkorra) • Diru-sarrera haztatu jakin batzuk izatea. • Eraikinak 20 urtetik gorako antzinatasuna izan behar du. • Obretarako udal-lizentzia izatea. • Gutxieneko aurrekontua babesgarria 3.000 eurotik gorakoa izan behar da (irisgarritasun-erako obrak izan ezik). • Jarduketak urtebeteko epean amaitu beharko dira, emakida jakinarazten denetik zenbatzen hasita. 	<ul style="list-style-type: none"> • Mailegu kualifikatuak: aurrekontu babesgarriaren % 100era irits daitezke, Eusko Jaurlaritzak edo beste administrazio batzuek emandako laguntzak kenduta. • Itzuli beharrik gabeko diru-laguntza, bizikidetzaren unitatearen aurrekontu babesgarriaren, obra motaren eta diru-sarrera haztatuen arabera kalkulatu dena.

DIRU LAGUNTZEN LERROAK	TORDAINTZEN DITUZTEN JARDUKETA MOTAK	LAGUNTZAK JASOTZEKO BALDINTZA OROKORRAK	AURREIKUSITAKO LAGUNTZAK
<p>2. lerroa:</p> <p>Obra komunitarioak</p> <p>Eraikuntza-elementu komunetan, instalazioetan edo zerbitzu komunetan egiten direnak dira, etxebizitzaren tipologia kontuan hartu gabe.</p>	<p>1. mota. Kontserbazio, segurtasun eta bizigarritasunerako obrak: egitura egokitzea, fatxadak birgaitzea, kanpoko bizigarritasuna (terrazak, balkoiak instalatzea, balkoiak handitzea eta luzatzea), estalkiak ordeztzea, isolamendu akustikoa, suteen aurkako segurtasuna, atariko eta eskaileretako konponketak.</p> <p>2. mota. Energia-efizientzia hobetzeko obrak: berokuntza, hozte-sistema, aireztapena, energia elektrikoaren autokontsumoa, ur bero sanitarioa, argiztapena, inguratzaile termikoa, barneko airearen kalitatea; isolamendu termikoa, kanpoko arotzeria ordeztzea, terrazak eta balkoiak ixtea eraikin osoan.</p> <p>3. mota. Irisgarritasuna hobetzeko obrak: igogailuak berritzea edo instalatzea, arkitektura-oztopoak kentzeko banaketa egokitzea edo desgaitasun sensorialak dituztenentzat egokitzea; bide publikotik sartzeko bideak berritzea; ekipoak eta tresnak berritzea, eta horiek seinalezatzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Komunitateek eta birgaitze-lanetan ari den komunitateko etxebizitza batean bizi diren partikularrek eska ditzakete. • Eraikinaren Ikuskapen Teknikoa (EIT) izatea. <p>Komunitateentzat:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Eraikinak etxebizitza-erabilera izan behar du nagusiki. • Eraikinak 20 urtetik gorako antzinatasuna izan behar du, salbu eta bere egonkortasunari eta segurtasunari eragiten dioten kalteak baditu, edo eskaerak oztopo arkitektonikoak kentzeari buruzkoak badira, etxebizitzetako bat 65 urtetik gorako pertsona baten edo mugikortasun urria edo zentzumen-disfuntzioa duen pertsona baten ohiko bizileku iraunkorra denean. • Obretarako udal-lizentzia izatea. <p>Partikularrentzat:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Dagokion kuota komunitarioarekin parte hartzea. • Diru-sarrera haztatu jakin batzuk izatea. • Gutxieneko aurrekontu babesgarria 3.000 eurotik gorakoa izan behar da etxebizitza edo lokal bakoitzeko (gutxieneko mugarik ez duten irisgarritasun-obretarako izan ezik). • Emakida jakinarazten denetik 18 hilabeteko epean amaitu beharko dira jarduketak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Mailegu kualifikatuak: aurrekontu babesgarriaren % 100era irits daitezke, Eusko Jaurlaritzak edo beste administrazio batzuek emandako laguntzak kenduta. • Itzuli beharrik gabeko diru-laguntza: <ul style="list-style-type: none"> • Komunitateetarako: aurrekontu babesgarriaren eta obra motaren arabera kalkulatu dira, eta gehieneko tartea 25.000,00 € eta 65.000,00 € artekoa da. • Partikularrentzat, aurrekontu babesgarriaren, obra motaren eta bizikidetzaren unitatearen diru-sarreraren haztatuen arabera kalkulatu dira laguntzak.

DIRU LAGUNTZEN LERROAK	TORDAINTZEN DITUZTEN JARDUKETA MOTAK	LAGUNTZAK JASOTZEKO BALDINTZA OROKORRAK	AURREIKUSITAKO LAGUNTZAK
<p>3. lerroa:</p> <p>Birgaitze integraleko obra komunitarioak</p> <p>Obrek irismen globala dutenean,aldi berean energia-efizientzia, irisgarritasuna eta bizitegi-tipologia kolektiboko eraikin osoen suteetarako segurtasuna barne hartuta.</p>	<p>Energia-efizientziaren hobekuntza: berokuntzaren urteko energia-eskaria gutxienez % 50 murrizten duten inguratzailerean gaineko jarduketak; berriztagarria ez den energia primarioaren kontsumoa gutxienez % 20 murrizten duten jarduketak (adibidez, eguzki-kolektoreak instalatzea...); monitorizazio-sistemari lotutako energiaren kudeaketa aurreratuko sistemei laguntzea (gutxienez etxebizitzaren % 80).</p> <p>Irisgarritasuna hobetzea: igogailuak instalatzea, eskailerak aldatzea barne; igogailuak zero kotarako egokitzea eta/edo neurriak egokitzea (irisgarritasuna); ibilbide irisgarriak bermatzea; irisgarritasun sensoriala hobetzea.</p> <p>Suteetan segurtasuna hobetzea: detekzio- eta alarma-sistemak, ebakuazio-sistemak (larrialdiko argiztapena), itzalke-ta-sistemak (su-itzalgai-luak eta zutabe lehorra)</p> <p>Kanpoko bizgarritasuna hobetzea (aukerakoa): balkoiak eta terrazak handitzea/luzatzea.</p>	<p>Norentzat:</p> <ul style="list-style-type: none"> Jabeen komunitateak. Eraikuntza-enpresak, eraikinen errentariak edo emakidadunak. Pertsona fisikoak edo juridikoak, pribatuak edo publikoak, ondasun-erki-degoak edo antzekoak. <p>Eraikinen betekizunak:</p> <ul style="list-style-type: none"> Familia anitzeko egoitzak, gutxienez 4 etxebizitza. 1980 baino lehenagokoak. Araudiaren arabera hirigintza- eta egitura-egokitzapenarekin. Gutxienerako bizigarritasun-baldintzekin, 317/2002 Dekretuaren eta abenduaren 30eko Dekretuaren arabera (IV. eranskina). Efizientzia energetikoko gabeziak izatea: D kalifikazioa edo baxuagoa. Irisgarritasunaren kasuan, igogailurik ez izatea, irisgarria/erabilgarria ez izatea, edo bide publikotik zero kotako irisgarritasuna bermatu ezin izatea. Eta, gainera, OD-SS oinarritzko dokumentuko baldintzak ez betetzea eta/edo suteak detektatzeko eta horien aurkako alarma-sistemarik ez izatea. EIT alde aurretik egin izana. 	<ul style="list-style-type: none"> Mailegu kualifikatuak: aurrekontu babesgarriaren % 100era irits daitezke, Eusko Jaurlaritzak edo beste administrazio batzuek emandako laguntzak kenduta. Itzuli beharrik gabeko diru-laguntza: laguntzaren zenbatekoak eta ehunekoak esku-hartzearen leerroaren arabera handituko dira: <ul style="list-style-type: none"> 1. leerroari dagozkionak: % 2. 2. leerroari dagozkionak: % 1. <p>Gainera, esku-hartzeak barne hartzen dituen atarieren kopuruaren arabera, portzentaje zuzentzaileak aplikatzen dira.</p> <p>Aurreikusitako laguntzen zenbatekoa hainbat gairen arabera da (jarduketa mota, lortutako irisgarritasun-maila, kasuen kontsiderazio orokorra edo berezia, etab.), eta gehieneko zenbatekoa 7.750 € eta 103.550 € artekoa da.</p>

DIRU LAGUNTZEN LERROAK	TORDAINTZEN DITUZTEN JARDUKETA MOTAK	LAGUNTZAK JASOTZEKO BALDINTZA OROKORRAK	AURREIKUSITAKO LAGUNTZAK
<p>4. lerroa:</p> <p>Diru laguntza lerro berria. Irisgarritasuna sustatzeko laguntza berezia</p>	<p>Birgaitze integraleko eta eraginkorreko obra komunitarioak.</p> <p>Esku-hartze horiei esker, birgaitze-laguntzen 1., 2. eta 3. lerroetan jasotako irisgarritasun-obrei ekin ahal izango zaie: obra partikularrek zein komunitarioak barne hartzen ditu.</p>	<p>65 urtetik gorako pertsonentzat edo mugikortasun urria edo desgaitasun sensoriala dutenentzat, eta beraien bizikidetzaren unitateentzat. Baita 12.000 eurotik gorako urteko diru-sarreraren haztatuak ez dituzten bizikidetzaren unitateentzako ere.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Beste lerroetan jasotako finantza-neurrien onuradun izatea. • Europako laguntzetan kalkuluak egiteko erabiliko den aurrekontu babesgarria lortzeko, emandako laguntza orokorrak kenduko zaizkio irisgarritasunari egotz dakioken aurrekontu babesgarriari. Ondoren, jabetza horizontaleko partaidetza-kuotaren ehunekoa aplikatuko da. 	<ul style="list-style-type: none"> • Mailegu kualifikatuak: irisgarritasun-obrak eskatzen dituzten jarduketa babesgarrietan, aurrekontuaren zati horretarako, eta kontzeptu horrengatik ematen diren laguntzak kenduta, maileguaren bidez ordaindu daitezkeen zenbateko bat zehaztuko da. Zenbateko hori irisgarritasuna sustatzeko lerro bereziaren onuradunek eskuratu ahal izango dute. • Irisgarritasunari egotz dakioken aurrekontu babesgarriaren % 100 ordaintzeko aukera ematen du, itzuli beharrik gabeko laguntzek edo onuradunek kontzeptu horrengatik jaso dezaketan eta haiek ordaindu behar duten beste edozein laguntza ordaintzen ez badute. Aplikatu beharreko ehunekoa urteko familia-errenta haztatuaren eta bizikidetzaren unitateko kide-kopuruaren araberakoa da.

Araudi berri honek jasotzen dituen laguntza askoren zenbatekoa kalkulatzeko, **“urteko diru-sarreraren haztatuak”** kontzeptua erabiltzen da. Diru-sarrerak babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruen inguruko finantza-neurriei buruzko 39/2008 Dekretuaren arabera kalkulatu dira. Diru-sarreraren haztatzeko, bizikidetzaren unitatearen diru-sarrerak eta bizikidetzaren unitateko kideen kopurua hartzen dira kontuan, zenbait koefiziente eta kalkulu-formula aplikatuta.



ETXEBIDEREN WEB-ORRIAN DAGOEN KALKULAGAILU HORREN BIDEZ BIZIKIDETZA-UNITATE BATEN DIRU-SARRERAREN HAZTATUAK KALKULATU DAITEZKE.

<https://apps.euskadi.eus/x39-appcont/es/x91aEtxebideWar/etxebide/calculopon?locale=es>



Laguntza berriei buruzko informazio gehiago eta eskaera:

https://www.etxebide.euskadi.eus/x39-contgen/es/contenidos/informacion/medidas_materia_rehabilitacion/es_def/index.shtml

Indarkeriaren biktima diren eta desgaitasuna duten emakumei ematen zaien laguntza hobetzeko tresna berriak:

“METIS GIDALIBURUA” ETA “SEMAFOROA” EGUNERATZEA

Elkarteanek bi tresna berri prestatu ditu desgaitasun fisikoa duten emakumeen aurkako indarkeria-egoerak hautemateko:

Indarkeria matxistari eta desgaitasun fisikoa duten emakumei buruzko gidaliburu bat, desgaitasuna duten emakumei, haien familiei eta laguntza-sareei zuzendua, indarkeria-egoerak identifikatzen laguntzeko. Arreta ematen dieten profesionalentzako ere bada, egoera horiek hobeto hautemateko eta horiei aurre egiteko tresnatzat erabil dezaten.

- *METIS* proiektuko *Indarkeriari eta Desgaitasuna duten Emakumei buruzko Gidaliburua*ren eguneratze bat da. Europar Batasuneko Batzordearen DAPHNE ekimenaren babesean, dokumentu bat idatzi zuten 1997 eta 1998 artean, desgaitasuna duten emakumeenganako indarkeria-motak lehen aldiz sailkatzeko, adierazpenak eta alarma-zantzuak aipatuta.
- “Adierazpenak” (indarkeria matxistak bere forma guztietan har ditzakeen moduak, portaera objektiboetan esplizituak eta egiaztagarriak direnak) eta “seinaleak” (portaera inplizitu ez hain nabarmenak eta antzemateko zailagoak direnak; erne egon behar dugu horiek antzemateko) jasotzen ditu, desgaitasuna duten emakumeek beren buruak indarkeriaren biktimatzat hartzeko eta indarkeria hori antzemateko, edozein motatako indarkeria jasaten ari badira, bai indarkeria aktiboa (fisikoa, psikologikoa, sexuala, ekonomikoa edo soziala), bai indarkeria pasiboa (fisikoa, emozionala, soziala).

“Desgaitasuna duten emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruzko semaforoa”. Semaforoaren helburua da indarkeria matxistako egoerak identifikatzen laguntzea eta egoera ho-



ELKARTEAN ERAGURTARUEN FOMAZA DUTEN PERTSONEN ELKARTU AKOONBORTAZIA



retatik atera eta indarkeriarik gabeko bizimodu autonomoa eta independentea bizi daitekeela ikustea, beharrezko laguntza eta baliabideekin.

- Semaforoaren metafora erabiltzen du, hiru egoera irudikatzeko: edozein eratako indarkeria matxista jasaten egotea (kolore gorria), indarkeria jasaten ari den emakumea dela konturatzen hasteko lehen urratsak ematea (laranja), eta indarkeriarik gabeko bizitza bizitzea (kolore berdea).

Tresna berri horien bidez, desgaitasuna duten emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazten lagundu nahi dugu, egoera horiek ezagutzen lagunduz edo haien laguntza-sareei edo edozein eremutan laguntzen dieten profesionali antzemateko elementuak emanez.

IRISGARRITASUN PLAN ETA OBRETA- RAKO LAGUNTZAK KENTZEA

Salatzen dugu

Irisgarritasunaren Euskal Kontseiluaren bidez jakin dugu eten egin direla udalentsako, toki-erakundeentzako eta xede soziala duten onura publikoko erakunde pribatuentzako Eusko Jaurlaritzaren laguntzak, irisgarritasun-planak egiteko eta eremu horretan obrak egiteko.

Laguntza horiek ezinbestekoak izan dira azken urteotan hiri-ingurunean eta eraikinetan irisgarritasun-baldintzetan aurrera egiteko Euskadiko udalerriguztietan, eta, beraz, horiek ez izateak atzerakada handia ekarriko du, bereziki udalerrietan eta toki-erakunde txikienentzat eta baliabide txikiagoak dituztenentzat.


Egoera horren aurrean, Elkarrean idazki bat bidali dio lehendakariari, Euskadin irisgarritasun unibertsala sustatzeko politiketan laguntzak eteteak dakarren atzerakada salatzeke. Gainera, honako hau hartu behar da kontuan:

- **Irisgarritasun Unibertsaleko Estrategia eta hura hedatzeko ekintza-planak Eusko Jaurlaritzak** Euskadi osoan irisgarritasun unibertsaleko baldintzak bermatzeko **hartutako konpromisoa dira**. Euskal administrazio publikoek jarduketa jakin batzuk gauzatzeko dituzten eskumenei buruzko gaiak alde batera utzita, konpromiso hori gauzatzeko behar besteko aurrekontu-zuzkidura eduki behar da.
- Espazio eta ingurune guztien irisgarritasuna oinarritzeko baldintza da desgaitasuna dugun pertsonok gure eskubide guztiak gauzatzeko, modu independentean bizitzeko, komunitatean aktiboki parte hartzeko eta gizarte-inklusiorako. **Irisgarritasun-baldintzak ez**

izateagatik ingurune, baliabide eta zerbitzuetara sarbidea ukatzea, diskriminazio-modu bat da, Nazio Batuen Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Batzordeak nabarmentzen duen bezala.

- Irisgarritasunean egin dako aurrerapenak **euskal gizarte osoaren onerako dira, aniztasuna txertatzearen aldeko apustutik abiatuta.**

Horregatik guztiagatik, Eusko Jaurlaritzari eskatu diogu ordezko neurriak har ditzala, irisgarritasun-planak eta hiri-ingurune eta eraikinetako irisgarritasunari buruzko araudia betetzen dela bermatuko duten obrak egin, eguneratu eta gauzatzeko udal eta toki-erakunde guztiak finantzaketa nahikoa izan dezaten.



DESGAITASUNA KONTUAN HARTZEA EUSKO JAURLARITZA PRESTATZEN ARI DEN DSBE-REN ERREGULAZIO BERRIAN

Eusko Jaurlaritza Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren arauketa berria lantzen ari da, berrikuntza garrantzitsuak txertatuz, desgaitasuna duten pertsonen prestazio horiek eskuratzeko aukera hobea izan dezaten. **Elkarteanen eta desgaitasuna duten pertsonak ordezkatzeko dituzten gainerako erakundeen eragin-lanaren ondoren, aurkeztutako azken zirriborroek hainbat hobekuntza nabarmen dituzte:**

1 Desgaitasuna duten eta ardurapeko seme-alabengatik prestazioa jasotzen duten pertsonak DSBE eskuratzekoan **“ezohiko bizikidetzaren unitatetzat”** hartzeko aukera jasotzen da, eta elkarrekin bizi diren senideengandik bereizitako bizikidetzaren unitatetzat hartzen dira. Baita beste kotizaziopeko edo kotizazio gabeko pentsio batzuen onuradunak ere. Aitorpen hori lorpen garrantzitsua da pertsona horiek baliabide propioak izan ditzaten, eta, horrela, bizimodu independenteagoa izan dezaten.

2 Desgaitasuna duten pertsonentzat aurreikusitako ekintza positiboko neurri guztiak desgaitasuna duten pertsona guztiak jaso ahal izango dituzte (aurretiko zirriborroetan, % 45eko desgaitasuna edo handiagoa aitortua duten pertsonen soilik jaso ahal zituzten neurri horiek, eta kanpoan utzi ziren prestazio horien beharra duten pertsona asko; azken zirriborroetan, berriz, % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten pertsonak sartzen dira, **“Desgaitasuna duten pertsonen”** legezko definizioaren arabera).

3 Desgaitasuna DSBEren zenbatekoa ezartzerakoan kontuan hartu beharreko

faktoreen artean sartzen da, **bizikidetzaren unitatearen ezaugarriei lotutako osagarrietan.**

4 Desgaitasuna duten pertsonen ez zaie eskatzen gutxienezko bizitza-aldi independentea egiaztatzea DSBE jasotzeko. Izan ere, pertsona askok ezingo lukete aurreko bizimodu independente hori egiaztatatu, beren familiekiko mendekotasun ekonomikoa daukatelako eta haien laguntza behar dutelako, eta horrek eman-tzipatzea eragozten die.

5 Prozedurak izapidetzeko eskuragarri dauden zerbitzu elektronikoak eta aplikazioen irisgarritasuna hobetzeko eta eten digitalak kentzeko beharra aurreikusten du.

Eusko Jaurlaritzak lege-aurreproiektua erregulazio berri horrekin onartu ondoren, proiektua Eusko Legebiltzarrerara pasatuko da, dagokion izapideak egin eta, hala badagokio, onar dezan.

Hobekuntza horiek positiboki baloratu arren, **Elkarteanek** uste du erregulazio berri horrek aurrera jarraitu behar duela Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren kontzeptualizazioan, beharrezko oinarrietako bat baita desgaitasuna duten pertsonen bizimodu independentea izan dezaten (ez soilik oinarritzko premiak betetzeko), bai eta desgaitasunaren gainkostua hobeto kontuan hartzeko ere, kolektibo horrentzako behar besteko diru-sarrerak ekonomikoak kontuan hartuta.



Enpleguari buruzko behaketa orokorrari egindako ekarpenak

Elkar-teanek Behaketa Orokorreko Proiektuari ekarpenak egin dizkio desgaitasuna duten pertsonen lanerako eta enplegurako duten eskubideari buruz (Nazio Batuen Konbentzioaren 27. artikulua); Izan ere, horixe lantzen ari da Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Batzordea.

Zehazki, honako hau eskatu diogu Batzorde horri:

- Estatu guztiek 27. artikulua interpretatzen eta aplikatzen dutela ziurtatzea, desgaitasuna duten pertsonen enplegua bermatzeko lan-ingurune ireki, irisgarri eta inklusiboetan, enplegu babestua sustatzera bideratutako lan-politikak baztertuz, desgaitasuna duten pertsonen gizarte-bereizketa indartzen baitute.
- Lan-ingurune ireki, irisgarri eta inklusiboetan enplegu duina lortzeko aukera esplizituki aitortzea, bizimodu independentea izateko eta komunitatean parte hartzeko dugun eskubidea gauzatzeko ezinbesteko baldintzetako bat baita.

Desgaitasuna duten pertsonen nazioarteko egunaren inguruko manifestua

Salatu nahi dugu Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioa onartu eta 15 urtera desgaitasuna dugun pertsonen eskubideak urratzen jarraitzen dela.

A benduaren 3a dela eta (Desgaitasuna duten Pertsonen Europako eta Nazioarteko Eguna), Elkar-teanek manifestua egin eta zabaldu du, Konbentzioa betetzean dauden gabeziak agerian utziz: gure eskubideak (bizimodu independentea, hezkuntza inklusiboa, enplegu arrunta eskuratzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, osasun-sistemako prestazio guztiak zentro eta instalazio irisgarrietan eskuratzea, espazio, produktu eta inguruneetarako guztion irisgarritasun unibertsala, etab.) eskuratzeko oraindik ere ditugun oztopoak eta horiek bermatzeko dituzten neurri eta politiketan botere publikoek duten konpromisorik eza.


ALDAMIOEN ORDENANTZA

Eginaren egínezek ekarpenak egin dizkio Gasteizen aldamiok jartzeko ordenantzaren zirriborroari. Udaleko talde politikoekin harremanetan jarri gara, testua aztertu eta ikertu dugu, eta desgaitasun fisikoa duten pertsonen eskubideak babesteko eta bide publikoan irisgarritasun-neurriak bermatzeko iradokizunak aurkeztu ditugu.

Horrela, proposatu da obretan oinezkoen ibilbide **irisgarri** ez erabilgarria bermatu behar dela, *(salbu eta Eusko Jaurlaritzaren 68/2000 Dekretuaren V. eranskineko 3.2 artikuluko salbuespenak badaude erabilgarritasun-irizpideak aplikatzeko)*. Beraz, oro har, oinezkoentzako ibilbide irisgarriak (aldamioaren azpikoak edo ordezko ibilbideak) eta arrapalek gutxienez **2,00 metroko zabalera izan behar dute, oztoporik gabe**. Horrek, aldi berean, obrengatik bide publikoak okupatzen badira, seinaleztatzeko eta balizatzeo ordenantza aldatu beharra dakar, kontraesanak saihesteko, lege horretara bidaltzen baitu ordenantzak.

Elkarrekin Podemos eta EH Bildu talde politikoek gure ekarpenak sartu dituzte aldamioren ordenantzaren eztabaidari egindako zuzenketetan, eta hasiera batean onartu egin dute urriaren 22ko udalbatzarrean.

Ordenantza aipatutako baldintzetan behin betiko onartzen bada, Udalak bide publikoen okupazioak seinaleztatzeko eta balizatzeo Ordenantza ere aldatu beharko luke, kontraesanak saihesteko, Ordenantza horretara bidaltzen baitu aldamiok jartzeko Ordenantzak.



ARABAKO ESI

Hainbat kexa jaso ondoren, eginaren egínezek

Arartekoarengana jo du, eta agerian utzi du Arabako ospitaleetako logelek zailtasunak dituztela desgaitasuna duten pertsonen autonomia pertsonala bermatzeko ospitaleratzean, eta baita arreta duina jasotzeko ere. Txagorritxun eta Santiagon izan ditugu arazoak.

Duela gutxi, eta erreklamazio horien ondorioz, harremanetan jarri ginen Arabako ESiko Zuzendaritza Ekonomikoarekin, pandemiaren aurreko harremani berriz ekiteko eta gure kolektiboari emandako arretaren kalitatea hobetzeko ezarriko diren neurri mailakatuak ezagutzeko.

Txagorritxu inguruan aurreikusitako eraikin berriei buruzko informazioa eman digute, modulu desberdinak egingo dituzte, hainbat erabileratarako, eta horiek bisitatzera gonbidatu gaituzte. Gelek itxaron egin beharko dute oraindik, bi ospitaleetako eraikinek birmoldaketa integrala behar baitute, eta geroago egokituko dituzte.

Hala ere, ikusi dugu beharrezkoa dela lau urteko irisgarritasun-planak betetzea eta inbertsioak eta egokitzapenak egiten joatea, arreta kalitatezkoa izan dadin, eta oinarriko eskubideak murriztu ez daitezen.

Era berean, **osasan-langileak desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonen arretaren duintasunaz kontzientziatzeko beharra ikusi da**, eta elkarteak bere burua eskaini du behar diren hartu-emanetarako.



ENPLEGUA

eginaren eginezek Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoaren 2020rako lan-eskaintza publikoaren deialdia aztertu du (bai hasieran onartutakoa, 2020ko abenduan baliogabetu zena, bai 2021eko uztailean onartutakoa), eta egiaztatu du ez duela betetzen desgaitasuna duten pertsonentzako plaza erreserbatzeko betebeharra (EPOEren 59. artikulua).

Hasieran onartutako eskaintzan plaza bakarra erreserbatzen zen, suhiltzaile-gidari kategorian; 2021eko uztailean onartutako LEPn, berriz, ez zen plazarik erreserbatzea aurreikusten.


Araudia argia da: onartzen den LEP bakoitzean bete behar da erreserba-kupoa. Horrek esan nahi du LEP osoa erabiliko dela erreferentziatzen zenbat plaza erreserbatu behar diren jakiteko (kupo hori gorantz aplikatuz lortutako kopurua biribildu beharko da).

Baina, horrez gain, desgaitasuna duten pertsonentzako plazen erreserba eraginkorra izan dadin (eta formalki bete behar den betekizun hutsa izan ez dadin), aplikatzekoa den araudiak exijitzen du erreserba hori egin dadila desgaitasuna izatearekin bateragarriagoak izan daitezkeen jarduerak dituzten lanpostuetan (kidegoak, eskalak edo kategoriak).

Hau da, **erreserbatzen diren plazak desgaitasuna duten pertsonen behar bezala betetzeko modukoak (edo, gutxienez, arrazoizko doikuntzen bidez egokitze modukoak) izan behar dira (lanpostuaren berezko zereginak eta funtzioak behar bezala beteko dituztela bermatuta).**

Arrazoi horiengatik, lehen LEPren

aurka errekurtsioa jarri genuen (ez zuen ezertarako balio izan, Aldundiak deialdia baliogabetu zuelako), eta berriro ere demanda jarri dugu uztailean onartutako LEPren aurka. Horrela, plazen % 7 erreserbatzeko betebeharra betetzea eskatu dugu; beraz, 2020ko LEPn onartu diren 15 plazetatik gutxienez 1,05 (hau da, 2) desgaitasuna duten pertsonen betetzeko gordetzea, eta erreserba hori lehentasunez “Administrazioko” lanpostuetan gauzatu beharko da (lanpostu operatiboetan gauzatu ordez).



TAXI ZERBITZURAKO LAGUNTZAK

eginaren eginezek jarraipen-bilera egin du GOFeko langileekin, 2021erako programaren berrikuntzak ezagutzeko eta deialdiari ekarpenak egiteko.

Taxi zerbitzua mugitzeko ezintasunak dituzten 12 urtetik gorako pertsonak garraiatzeko beste modu bat da; besteak beste, gurgil-aulkiak erabiltzen ditugun pertsonak, bi bastoi erabili behar dituztenak edo ibiltzeko hirugarren pertsona baten laguntza behar dutenak. **Helburua garraio kolektibo arrunta erabili ezin dugunon kalitatea hobetzea da, autonomia, garapen pertsonala eta inklusioa sustatzeko.**

Laguntza horien bidez, aurrez ordaintzeko txartel izendun bat jartzen da pertsonen eskura. Txartel horretan, taxi-zerbitzua ordezeko garraio bide gisa erabili ahal izateko emandako zenbatekoa kargatzen da.

Desgaitasun fisikoa duten pertsonen kasuan, laguntzak jasotzeko eskubidea izateko, % 33ko desgaitasuna edo handiagoa aitortuta eduki behar da, eta baremoan 9 puntu baino gehiago eduki behar dira garraio bide

kolektiboak erabiltzeko zailtasunak daudela adierazteko.

Aurtengo berritasunetako batzuk hauek izan dira: banakako gehieneko zenbatekoa urteko **650 euroa** igotzea eta **III. mendekotasun-gradua** duten eta **laguntzadun etxebizitzetan** bizi diren pertsonen zerbitzua erabili ahal izatea:

- Aurrekontu orokorra: 350.000 euro.
- Banakako laguntzaren zenbatekoa: 650 €.
- Eskuratzeko irizpidea aldatu egin da eta laguntzadun etxebizitzetan bizi diren pertsonen ere eskura dezakete; egoitzetan bizi diren gainerako pertsonen dagokienez, hala nola Goizalden bizi zaretenei dagokienez, jakinarazi digute deialdiaren ordezeko formula bat bilatuko dutela mugikortasuna errazteko, baina zehazteke dago zein izango den.
- Txartelaren saldoa 2022ko abenduaren 30ean deskargatuko da, eguerdiko 12:00etan.

Elkarteak eskatu du aurrekontuko partidaren zenbatekoa gutxienez 2020ko murrizketaren aurreko zenbatekora itzultzea (356.000 euro gehi, hala badagokio, % 50 gehiago), eta, banakakoa 880 euroko zenbatekora itzultzea, aurreko urteetako deialdietan indarrean zegoen zenbatekora.

Gure ustez, garraio publikoak pertsona guztientzat irisgarria izan behar du, eta programa hori beharrezkoa da garraio publikoa erabili ezin dutenentzat; beraz, Arabako bizimodu independenterako ereduaren barruan txertatu beharko litzateke.



| Araba |

TRANBIA

Euskotreneko bozeramaileek eginaren eginez bisitatu dute tranbiako tiketak saltzeko sistema berritzeko plana aurkezteko: gaur egun dauden salmenta-makina guztiak aldatzea aurreikusi dute.

Gogoratuko duzuen bezala, 2013an **eginaren eginez**ek Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren epai bat jaso zuen, Euskal Trenbide Sarea behartzen zuena Gasteizko tranbiaren geralekuak 20/1997 Legearen irisgarritasun-irizpideetara egokitzera. Geralekuak oso estuak ziren, eta makinak ez ziren irisgarriak. Aldaketak Gasteizko 12 geltokitan egin dira, baina makinak oraindik ez dira irisgarriak. Orain, **Euskotrenek** bisita egin digu eta lantokumen dokumentu bat aurkeztu digu. Dokumentu horretan, sistema berri dela jasotzen da, eta ukimen-pantaila batzuk jarri dira, pertsona ezagutzeko eta harekin elkarrengaitzeko. Proposamen hori lantzen ari gara, norainokoa den jakiteko. Ezagutu nahi baduzu, Elkartetik pasa.

ETXEBIZITZA EGOKITUAK

TERRAZAS ARETXABALETAREN sustapena: mugikortasun urriko pertsonentzat diseinatutako etxebizitza egokituak. Susta- tzailearekin zuzenean harremanetan jarri, etxebizitzetara proiektuari buruzko informazio gehiago izateko, bitarteko hauen bidez:

Gasteizko bulegoa:
Vitoriabidea kalea 3, behea (Ali-Gobeo industrialdea), Gasteiz.

Posta elektronikoa:
administracion@perezsanroman.com

Webgunea:
https://trivinsa.com/inmueble/vpo-domus-aretxabaleta/



SINADURAK JASOTZEA

Gogoratu 2022ko urtarrilaren hasierara arte sinadurak biltzen ari garela elkartearen lokalean, Eusko Legebiltzarrean **Herri Ekimen Legegile** bati ekin diezaioten, **Oinarrizko Errenta Baldintzagarriaren alde**: herritar guztien oinarrizko beharrak bermatzera bideratutako esleipen ekonomikoa publikoa.

Informazio gehiago duzu gure webgunean:

www.eginnez.org



steak, elkarriketak, bideoak...

Anima zaitetz parte hartzera!

KONTZIENTZIAZIOA ETA PRESTAKUNTZA

eginaren eginezek hainbat diziplinatutako ikasleei eman die arreta, bai telematikoki bai aurrez aurre, desgaitasun fisikoari buruzko informazioa biltzeko. Dibilgaziozko materiala ematen zaie eta prestatuta ekartzen duten galdetegiari erantzuten zaio talde-lana denean. Askotan saioak grabatu egiten dira, gero emandako informazioarekin lan egin dezaten.

Boluntarioen bulegoko Arabako ordezkariari ere eman zaio arreta, eta **Bizimodu Independenteari** eta **Irisgarritasunaren Sustapenari** buruzko bi fitxa bete dira, boluntariotza egiten ari diren pertsonen lagundu ahal izateko ekimen gisa abiarazteko.

SAREKO LANA

eginaren eginez harremanetan dago desgaitasuna duten pertsonen interes orokorreko gaietarako Araban dauden desgaitasun-elkarteekin, eta, bereziki, **AEDISA** enpresa-elkarte bat eratu duten sei elkarterekin, sektorerako erreferentziatzeko. AEDISA erakunde hauek osatzen dute: ATECE, AEMAR, ARABAKO GORRAK, ASPASOR, TEA ARABA eta *eginaren eginez*.

Azaroaren 8an bilera bat izan genuen Emilio Sola Ballojera Gizarte Politiketako foru diputatuarekin eta haren zuzendaritza-taldearekin, **AEDISA**ko elkarteok bizi dugun egoera zalantzarriari buruz daukagun kezka jakinarazteko.

Bileraren lehen puntua, hain zuzen ere, **AEDISA**, Arabako desgaitasunaren arloko erakundeen enpresa-elkartea aurkeztea izan zen. Elkarte horrek lan-harremanetan parte hartuko du, berezkoak dituzten interes ekonomiko eta sozialak defendatzen eta sustatzen laguntzeko.

Jarraian, erakundeok Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearekin sinatuta ditugun lan-kidetza-hitzarmenen aurrekontu-izozteak eragindako ezinegona helarazi genien, eta zerbitzuak ematen dituzten eta zerbitzurik ematen ez duten elkarten artean egiten den bereizketari buruzko argibideak eskatu genizkien, hirugarren sektoretik egiten dugun lana aldarrikatuz.

Era berean, Desgaitasunaren Kontseilu Sektoriala deitzeko eskatu dugu, haren funtzionamendu-araudia urratzen ari delako eta erakundearekin gai asko landu nahi ditugulako desgaitasuna duten pertsonen autonomia pertsonala eta bizi-kalitatea hobetzeko: banakako laguntzen programa, Orientazio eta Balorazio Zentroa, arreta goiztiarra, Bizimodu Independenterako Programa, taxirako laguntzen deialdia, etab.

Indar kolektiboa oinarriztat hartuta Arabako desgaitasunaren hirugarren sektoreko erakundeekin sarean egin dugun lan honi esker, elkarten egiturak eta desgaitasuna duten pertsonen giza eskubideak hobetzen jarraitzea espero dugu.



| Bizkaia |

FEKOORREKO ELKARTEEK KANPAINA BAT ABIARAZI DUTE SARETAN, ASOZIAZIONISMOA SUSTATZEKO

Fekoor osatzen duten 18 elkarteek informazio-kanpaina bat egin dute urrian eta azaroan sare sozialetan, Bizkaiko gizarteari egiten duten lana erakusteko eta elkartetan asoziazionismoa sustatzeko.

“Zurekin + gara. Somos + Contigo” izan da goiburua. Talde horiek 9.000 bazkide inguru biltzen dituzte, eta elkarteekin elkarlanean aritzeko beharra adierazi zieten herritarrei, “batasunak ematen duen indarrak baliatuta”, hobekuntzak lortzeko ikerketan, osasunean, gizartean, emozioetan, irisgarritasunean eta laguntza-baliabideetan.

Nabarmendu zutenez, “aldaketarako, eskubi-deak aldarrikatzeko eta egoera zaurgarrian dauden pertsoneri laguntzeko eragileak gara, eta gure proiektuekin, herritarrak ahalduntzen, inguruneak eraldatzen eta aukerak sortzen laguntzen dugu, bizikidetzan eta parte-hartzean oinarrituta.”



BILBOREN KONPROMISOA ARTXANDAKO IRISGARRITASUNA HOBETZEKO

Bilboko Udalak urtea amaitu baino lehen Artxandako Funikularren, Trueba Ikastetxearen eta egoitza-ekipamenduen arteko ibilbidean irisgarritasuna hobetzeko konpromisoa hartu du Fekoorrekin..

Fekoorreko ordezkari bat, gurpil-aulkia erabiltzen duen pertsona bat tartean zela, udaleko arduradun batekin bildu zen irailean funikularren eta Trueba ikastetxearen arteko ibilbidea ikuskatzeko. Ibilbidean zehar, mugikortasun urria duen pertsonari jasogailuaren eta helmuga horien arteko ibilbidea egitea eragozten dioten gabeziak ikusi ahal izan zituzten (beherapenik eza, estutasuna eta espaloietako oztopoak, eta zebra-biderik eza).

Lekua aztertu ondoren, Udalak arazoak konpontzeko konpromisoa hartu zuen, eta Fekoorrek eskerrak eman eta etorkizunean “Bilbo inklusio-eredu bihurtzeko” lankidetzan jarraitzeko prest dagoela adierazi du.



FEKOORREK IBILBIDE IRISGARRIA DISEINATU DU LAMIAKON (LEIOA)

Fekoorrek zirkuluerdi-formako ibilbide irisgarri eta kronologikoa diseinatu du Leioako Lamiako auzoaren inguruan, Ondarearen Europako Jardunaldien barruan. Bertan, inguruko gertakari historikoak azaltzen dira, erliebezko irudiekin eta zeinu-mintzairaren interpretearekin.

Beste gertaera historiko batzuen artean, Maximo Aguirre nor izan zen, Athleticek non jokatzen zuten, aerodromoa non egon zen edo lamiak nortzuk ziren azalduko zaie parte-hartzaileei, eta aristokraziaren eta langile klasearen arteko elkarbizitzaz hitz egingo dute. Helburua da pertsonen % 100eko ibilbide inklusibotik zehar laguntzea, Bizkaiko inguru horretako ondare immateriala eta iragana ezagutzeko.

ZATOZ FEKOOREKIN ENTRENATZERA

Kirok egokitua egin nahi baduzu, **Fekoorren** hiru modalitate dituzu: gurpil-aulkiko padela, Boccia eta mahai-tenisa.

Gurpil-aulkiko padela astearteetan egin dezakezu,

11: 00etatik 13: 00etara,
Zamudioko Es+ padel klubean.

Boccia

astearte eta ostegunetan, 17: 00etatik 19: 00etara, Erandioko Altzaga kiroldegian.

Eta **Mahai-tenisa**

astelehen eta asteazkenetan, 17: 00etatik 20: 00etara, San Inazioko kiroldegian.

Informazio gehiago nahi izanez gero, jar zaitez harremanetan **Fekoorrekin** **94.4051780 telefonoan** edo **ocio1@fekoor.com** helbide elektronikoan.

ALSARI ESKATU DIOGU LINEA ETA AUTOBUS EGOKITUEN KOPURUA GEHITZEKO

Fekoorrek ALSA konpainiari eskatu dio egokitutako lineen eta autobusen kopurua gehitzeko, Estatuko beste leku batzuetara joan nahi duten mugikortasun urriko pertsonen beharrei erantzuteko.

Gure erakundeak eta ADISAK egiaztatu dugunez, ALSA Madriletik Bilbora joateko bakarrik dauzka autobus egokituak, eta, hortik, gurpil-aulkian doazenek beste konexio bat bilatu behar dute beste probintzia batzuetara joateko.

Horixe gertatu zitzaizen **Fekoorreko** bi bazkideri: uztailen Plasencian (Extremadura) senideak bisitatu nahi zituzten, eta arazo horregatik atzeratu egin behar izan zuten bidaia. Biek kritikatu dutenez, konexio faltaz gain, autobus bakoitzean pertsona bakarra joan daiteke aulki elektrikoan; “beraz, egoera berean dagoen norbaitekin bazoaz, lekualdatu egin behar duzu, autobus berean bi aulki sartzen ez direlako”.

Zerbitzu hori ez izateak irisgarritasunaren arloan indarrean dagoen legeria urratzen du, eta gure kolektiboaren mugikortasuna eta erabateko gizarte-inklusioa eragozten du. Hori dela eta, zerbitzua gehitzeko eta web-orria hobetzeko eskatu diogu ALSAri, txartelak online erostea eskuragarriagoa izan dadin.





DESGAITASUNEN EUROPAKO KOLEKTIBOEN LEHEN TOPAKETA

EJoan den irailean CUP-E+ proiektu europarraren lehen topaketa egin zen Bilbon, eta Frantziako bi kolektibo (AEHM eta Lilleko Unibertsitatea), Italiako bat (Capodarco Nekazaritza) eta Fekoor (antolatzailea) bildu ziren bertan.

3 egunez, esperientziak trukatu zituzten, desgaitasuna duten pertsonen gizarte-trebetasunak eta autoestimua hobetzeko moduari buruz hitz egin zuten, bai eta haien gizarte-partaidetza areagotzeko moduari buruz ere.

Topaketaren amaieran, erakunde guztiak pozik agertu ziren jarduera horrekin, eta martxoan berriro egingo dute Erroman. Horrez gain, domotikak beren bizi-kalitatea hobetzeko duen garrantzia azpimarratu zuten. Gainera, desgaitasuna beste herrialde batzuetan nola bizi duten eta nolako laguntzak eskaintzen diren ere ezagutu zuten.

BIZKAIAN BIZIMODU INDEPENDENTEAREN KULTURA ZABALTZEA

Fekoorrek 2021etik 2023ra arte dihardu bere esparru estrategikoa garatzen, eta apustu garbia egiten du desgaitasuna duten pertsonen bizimodu independentearen kultura Bizkaiko gizartean zabaltzeko; izan ere, erakunde hori erreferentea da Bizkaian.

Horretarako, laguntza eskainiko die udalei **“udal-planak egiterakoan, non, nola eta no-rekin bizi aukeratzeko herritarrek duten eskubidea bermatzeko, mugikortasun unibertsala kontuan hartzen duen ingurune irisgarrian”**.

Beste helburuetako bat Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Zerbitzuen Zorroa garatzen eta zabal-tzen laguntzea da, Elkarteanen bidez, zorroak diru-sarreraren bermea eta pertsonen instituzio-nalizazioa saihestuko duten ordezeko zerbitzuak barne har ditzan, hala nola ingurunean laguntza-unitateak sortzea (begiraleak eta laguntzaile pertsonalak), behar dituenak bizimodu independentea egiteko beharrezko tresnak izan ditzan, eguneko zentroetara edo egoitzetara jo beharrik izan gabe.

Era berean, erakundeek laguntza-plan integral bat ezar dezaten lan egingo du **Fekoorrek**, besteak beste honako gai hauek barne hartuta: ingurune komunitarioetan laguntza teknologikoak dituzten etxebizitzak diseinatzea eta etxeak eraldatzeko laguntza gehiago ematea, “erabat irisgarriak” izan daitezzen.

FEKOORREKO ZUZENDARITZA BATZORDE BERRIA

2021-2023 Esparru Estrategikoa onar-tzearekin batera, Batzar Nagusiak Zuzendaritza Batzorde berria izendatu du. Bertan, **Iñaki Ramos** Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Ermuako Elkarteko (BIDARI) ordezkaria da **Fekoorreko** batzordeburu berria, eta **Zuberoa Liendo**, Euskadiko Gaixotasun Arraroen Arantza Bifidoa eta Hidrozefalia Elkarteko (ASEBIER) ordezkaria da batzordeburuordea.

ETXEGOKIK 10 URTE BETE DITU

Etxegokiko laguntzadun apartamentuek **10 urte bete dituzte aurtan; hamarkada horretan, Fekoorrek kudeatzen duen foru-zerbitzu horretatik 43 pertsona igaro dira modu iraunkorrean eta 139 aldi bate-rako.**

Desgaitasun fisikoa duten pertsonentzako 32 apartamentu dira. 34 pertsona bizi dira bertan, 18 eta 64 urte bitartekoak. Pisuek berri-kuntza soziala eta teknologikoa batzen di-tuzte, bizimodu independentea sustatzeko laguntza-sistema bat sortzeko, irisgarritasun unibertsaleko, aukera-berdintasuneko, partai-detzako eta inklusioko eta desgaitasuna duten pertsonentzako diskriminaziorik gabeko bal-dintzak sortzeko.

Balio gisa, nabarmendu behar da Etxegokin bizi diren aniztasun funtzionala duten perso-nek berek parte hartzen dutela apartamentuen funtzionamendu egokian.

ETXEBIZITZA ETA IRISGARRITASUNA: PARTE HARTZEKO PROZESUA

Azken hilabete hauetan, **elkartuk** partaidetza-prozesu bat burutu du, etxebizitzak diseinatzeko moduari buruzko informazioa eta proposamenak biltzeko, desgaitasuna duten pertsonen autonomia pertsonala eta bizimodu independentea susta dezaten.

Etxebizitzako gelei eta osagaiei buruzko galdetegi bat zabaldu ondoren, eta proposamen eta estrategia egokienak modu partekatuan diseinatzeko tailer bat antolatu ondoren, partaidetza-prozesutik ateratako proposamenak eta ondorioak jasotzen dituen txosten bat egin dugu.

Proiektu honen bidez, agerian geratu da etxebizitzaren arloan oraindik ere oztopo handiak daudela desgaitasun-egoeira batek dakartzan premiei erantzun egokia emateko: eraikinerainoko ibilbidean dauden oztopoak, atearen edo atariko elementuen diseinua, igogailura sartzeko eskailerak egotea, igogailuaren beraren neurriak eta ezaugarri teknikoak, etxebizitzara sartzeko atea irekitzeko sistema, gelen neurriak, laguntza-produkturik eta domotizazio-sistematik ez egotea, edo elementu eta gailuek duten altuera. Horiek partaidetza-prozesutik ondorioztatutako adibide batzuk baino ez dira, desgaitasuna duten pertsonen autonomia pertsonala eta bizimodu independentea eragozten dutenak.

Ateratako ondorioak eta proposamenak etxebizitzaren arloan esku hartzen duten eragile publiko eta pribatuekin egiten den eragin-lanari erantsiko zaizkio, bai eta **Bizimodu Independenteterako Eredua** bultzatzeko Federazioa partaide den proiektuei ere.

Txostena eta horren bidez sortutako dibulgazio-materiala **elkarturen** webgunean (www.elkartu.org) eskuratu ahal izango da. Norbaitek gai horri buruzko bere ikuspegia eman nahi badu, ohiko bideak erabil ditzake bere gogoetak eta proposamenak helarazteko, eta kontuan hartuko dira desgaitasuna duten pertsonen eskubideak defendatzeko elkarte-jarduerak garatzean.



MUSEOETAKO IRISGARRITASUNARI BURUZKO PRESTAKUNTZA

elkartuk “Errazbiden” lagundu du, kultur sektoreko eta, bereziki, museoetako profesionaleri zuzendutako irisgarritasunari buruzko prestakuntzan, K6 Kudeaketa Kulturala enpresak antolatuta.

Zehazki, hainbat tailer eman dira. Horietan, kultura-proiektu eta -jarduerak, bereziki museoen arloan bete behar dituzten printzipioak eta irizpideak partekatu dira, pertsona guztien parte hartzea bermatzeko, irisgarritasun unibertsalerako eta inklusiorako behar diren baldintzetan.

Ikuspegi teoriko eta praktikotik, irisgarritasun unibertsalaren ikuspegia museoan zeharka txertatu da, eta teknikariei zerbait neurri gomendatu zaizkie instalazioen, zerbitzuen eta jardueren irisgarritasuna hobetzeko, bai eta desgaitasuna duten pertsonen kalitatezko arreta bermatzeko jarraibideak eta tresnak ere.

BIZIMODU INDEPENDENTEARI BURUZKO OHARRAK

Bizimodu independenterako eskubidea sustatzeko lanarekin jarraituz, **elkartuk** eskuliburu didaktiko bat prestatu du **Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Batzordearen 5. ohar orokorrari (modu independentean bizitzeko eta komunitatean parte hartzeko eskubidea) buruz.**



Ohar orokorrak Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioaren 19. artikulua garatzen du. Bertan, modu independentean bizitzeko eta komunitatean parte hartzeko eskubidea aitortzen da, eta, ha-

laber, bizimodu independentearen kontzeptua bera eta hura osatzen duten elementuak behar bezala interpretatzeko jarraibideak ezartzen dira.

elkartuk egindako eskuliburuaren helburua da modu erraz, argi eta didaktikoan aurkeztea ohar orokorraren edukia, kontzeptuak, eskubideak eta betebeharrak argitzeko lagungarria izan dadin, bai desgaitasun fisikoa duten pertsonentzako, bai gizarte-politiken esparruan esku hartzen duten profesionalentzako.

Hala, bizimodu independenterako eskubidea aitortzen duten lege-testuak testuinguruan kokatu ondoren, funtsezko hiru elementu jasotzen dituen definizio bat ezartzen da:

- Bizilekua, eta non eta norekin bizi aukeratu ahal izatea, bizi-sistema espezifiko baten arabera bizitzera behartuta egon ez daitezten.
- Norberak aukeratutako laguntzak eduki ahal izatea, pertsonalizatuak eta moldagarriak, norberaren bizitza eta komunitatean parte-hartzea errazteko.
- Beharrezko irisgarritasun unibertsaleko baldintzak betetzen dituzten instalazio eta zerbitzu komunitarioetarako sarbidea.

Bestalde, normalean gertatzen diren nahasketak edo interpretazio okerrak saihesteko, bizimodu independentea zer den eta zer ez den azaltzen da, adibideen bidez. Eta laguntzei dagokienez, bizimodu independenterako eskubidea gauzatzeko kontuan hartu behar diren funtsezko ezaugarriak adierazten

dira, arreta berezia eskainiz laguntza pertsonalari; izan ere, eskubide horren alderdi garrantzitsuenetako bat da, autonomia pertsonalari eta gizartearen berdintasun-baldintzetan parte-hartzeari laguntzen baitio.

Dokumentua **elkarturen** webgunean dago eskuragarri (www.elkartu.org), bai eta haren hedapena errazteko sortutako ikus-entzunezko materiala ere.

ONDARE IRISGARRIA ETA INKLUSIBOA ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIETAN

Urritik aurrera, Europako Kontseiluak sustatzen dituen Ondarearen Europako seigarren Jardunaldiak egin dira Seigarren jardunaldi hauetarako aukeraturako gaia irisgarritasuna eta inklusioa da. Gai horrek ondarea zabaltzera gonbidatzen ditu herritarrak, ondarearen sarbide unibertsala bermatzeko. Horregatik, helburu hori islatzeko aukeratu den goiburua honako hau izan da: **“Guztion ondarea, denok parte! Patrimonio inclusivo y accesible”**.

elkartuk jardunaldi horietan parte hartu du hainbat jardueraren bidez, pertsona guztiek kultura eskuragarri izan dezaten sustatzeko, eta horretarako, irisgarritasun unibertsalaren eta inklusioaren balioak bultzatu ditu. Zehazki, honako ekimen hauetan aktiboki parte hartu dugu:



1 **(H) ARI TIK TIRA KA,** emakumeen kolektiboen, artisten eta hezitzaileen arteko lankidetzaproiektua, desgaitasuna duten emakumeei parte-hartze kulturala errazteko eta bultzatzeko asmoz.

2 **“OZTOPORIK GABEKO ONDAREA” GYMKANA,** ibilbide sentsoriala Añorgako kolonia industrial zaharreko espazioetatik, gurpil-aulkia, begi estaliak, arrapalak, harea, hartxintarra, zintarriak eta abar dituen zirkuitu batez osatua.

3 **IBILBIDE SENTSORIALA AIZPEAKO MEATZE GUNEAN,** Zeraingo ondarearen zati garrantzitsu honetan, ikusmena alde batera utzita, gainerako zentzumenen bidez egin beharreko ibilbidea.

Azken batean, ekimen horien diseinua eta garapena lagungarriak izan dira kulturaren arloan esku hartzen duten erakunde eta eragileentzako, bai eta herritar guztientzako ere, irisgarritasun unibertsalaren baldintzak eta kulturaren izaera inklusiboa bultzatzeko beharra helarazteko, pertsona guztiek kulturaz berdintasun-baldintzetan gozatu ahal izatea bermatze aldera.

SALAKETA DONOSTIA-BIARRITZ AUTOBUSARI BURUZ

Hainbat kexa jaso ondoren, **elkartu** Donostiako Udalarekin harremanetan jarri zen Donostia eta Biarritz lotzen dituen zuzeneko autobusak irisgarritasun unibertsalerako beharrezko baldintzak ez dituela betetzen salatzeke.

Hala, ibilgailuak ez du mugikortasun urria duten pertsonentzako sarbide-sistematik, eta, ondorioz, herritar batzuk diskriminatu egiten ditu, zerbitzu publiko bat erabiltzeko eskubidea galtzen dutelako.

Horrenbestez, Udalari eskatu genion, mugaz gaindiko erakundeekin lankidetzan, Donostia eta Biarritz lotzen dituen autobus-linearen irisgarritasun-gabezia larriak konpon zitzala, eta beharrezko neurriak har zitzala pertsona guztiek, salbuespenik gabe, zerbitzu publiko hori berdintasun-baldintzetan erabili ahal izatea bermatzeko.



ASTIGARRAGAKO KIROL INSTALAZIOEI BURUZKO ARAUDIA

Astigarragako kirol-instalazioak erabiltzeko araudia onartu da (Astigarragako kiroldegia, Txomiñenea pilotalekua eta Zarkumendegi futbol-zelaia), baita ematen dituzten zerbitzuetarako araudia ere.

elkartuk hainbat alegazio aurkeztu zituen desgaitasuna duten pertsonen aukera-berdintasuna bermatu zedin kirol-instalazioak eta -zerbitzuak erabiltzean. Proposamen horietako batzuk onartu egin dira, eta honako hauek dira garrantzitsuenak:

- Terminologia Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioaren baldintzetara egokitzea.
- Erakunde antolatzaileek beharrezko neurriak hartzeko betebeharra ezartzea, irisgarritasuna bermatzeko, pertsona guztiek jardueraz goza dezaten.
- Debekatuta dago beste sexurako aldageletara sartzea (6 urtetik aurrera). Arau hori ez da aplikatuko desgaitasuna duen pertsona batek beste pertsona baten laguntza behar duenean.

Beste alegazio batzuk onartu ez diren arren, elkartuk lanean jarraituko du desgaitasuna duten pertsonen kirol-instalazioak, -jarduerak eta -zerbitzuak berdintasun-baldintzetan baliatzeko duten eskubidea bermatzeko.

“HIRIA PENTSATZEN” ERAKUSKETA

Museum Cemento Rezolak “Hiria pentsatzen” erakusketa antolatu du, 2021eko azaroaren 4tik 2022ko martxoaren 26ra bitartean.

Herritarrek parte hartzeko proiektu baten emaitza da erakusketa hau, eta hirien eraldaketa eta etorkizuna ingurumenaren jasangarritasunaren eta hirigintza sozialaren ikuspegitik pentsatzera gonbidatzen du. Erakusketa honek arkitekturari, hirigintzari, ongizateari eta ekologiari buruzko begirada kolaboratibo eta plurala jasotzen du.

elkartuk erakusketa diseinatzen lagundu du, hirietan irisgarritasun-eta inklusio-baldintzak bermatzeko moduari buruzko proposamenen bidez, pertsona guztiei aukera sozial, ekonomiko, kultural eta politiko berberak eskaini diezazkieten.



DATUAK EGUNERATZEKO ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK JASOTZEKO PROZESUA

elkartuk Federazioan izena eman duten pertsonen datuak eguneratzeko prozesua hasi du.

Helburuak honako hauek dira: izena ematerakoan emandako informazioa osatzea eta eguneratzea, datu pertsonalak babesteko arauak betetzea eta komunikatzeko modu berriak bultzatzea (posta elektronikoa, telefono mugikorra, etab.).

Horretarako, fitxa bat bidali dugu, bete ondoren helaraz dadin, daukagun informazioa eguneratzeko. Fitxa web orrian ere badago (www.elkartu.org), bete eta modu digitalean bidali nahi duenarentzat.

Era berean, **elkartuk** gauzatzen dituen programa eta jarduketei buruzko iradokizunak, iritziak eta hobekuntza-proposamenak helarazteko aukera eskaini dugu (webgunetik ere helaraz daitezke).

Ziur gaude zure proposamenek desgaitasun fisikoa duten pertsonen eskubideak defendatzeko egiten dugun lana hobetzen lagun diezaguketela.